BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

205. zk. 2026, urriak 26. Astelehena 1. orr.

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

BIzkaia Bizkaialde Fundazioa

3/2026 Iragarkia, Bizkaia Bizkaialde Fundazioarena, 2026/2027 denboraldirako edo 2027 urterako kirol-klubei zuzendutako diru-emateen deialdiaren kreditu-gehikuntzaren berri ematen duena.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren Patronatuak, 2026ko uztailaren 2an egindako bileran, Bizkaiko Lurralde Historikoko kirol-klubei, maila gorenean lehiatzen diren taldeei eusteko, zuzendutako diru-emateen oinarri arautzaileak eta deialdia onartu zituen. Deialdi horren iragarkia 2026ko abuztuaren 5eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 147. zenbakian argitaratu zen.

Aipatutako bileraren aktaren hirugarren puntuan honako erabaki hau hartu zen:

«2026/2027 denboraldirako laguntzen deialdia aurreko ekitaldietako baldintza berberetan onartzen da, klub bakoitzak jaso ahal izango duen gehieneko zenbatekoa 65.000 eurokoa izaten jarraituz. Era berean, hasierako zuzkidura 600.000 eurokoa izango dela ezartzen da, eta kreditu hori handitzeko aukera aztertzeko eskatzen da.»

Deialdia argitaratu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiaren kreditu globalera egindako 250.000 euroko eta 60.000 euroko kreditu-transferentziarako eskabideak onartu dira, hurrenez hurren, Bizkaia Bizkaialde Fundazioari dagokion G/341109/45202 2007/0140 partidaren alde.

Halaber, fundazioaren berezko jarduerak sortutako baliabideek, erakunde laguntzaileek egindako ekarpenetatik, egindako itzulketetatik eta banku-kontuetatik lortutako finantza-etekinetatik eratorritakoek, deialdirako hasiera batean aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa handitzea ahalbidetzen dute.

Bestalde, Fundazioko idazkariak Patronatuari jakinarazi dio akats material bat egon dela dirua emateko deialdian. Zehazki, B) atalean, «Liga-sistemarik gabeko lehiaketak dituzten kirol-modalitateen klubak», 1.2.c) puntuan, «Betekizun espezifikoak», honako hau dioenean: «Alegatutako meritu guztiak klubari dagokion 2024/2025 edo 2025eko denboraldikoak izango dira betiere», honako hau esan behar du: «Alegatutako meritu guztiak klubari dagokion 2025/2026 edo 2026ko denboraldikoak izango dira betiere».

Azaldutako guztiagatik, iragarki honen bidez jakinarazten da, batetik, 2026/2027 denboraldirako edo 2027. urterako kirol-klubentzako diru-emateen deialdiko diru-zuzkidura handitu egin dela, hasieran aurreikusitako 600.000 eurotik 930.000 eurora igaro baita, eta, bestetik, zuzendu egiten dela deialdiaren oinarrietako «Liga-sistemarik gabeko lehiaketak dituzten kirol-modalitateen klubak» izeneko 1.2.c) puntuan («Baldintza espezifikoak») atzemandako akats materiala.

Bilbon, 2026ko urriaren 16an.—Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren Presidentea, Leixuri Arrizabalaga Arruza

eek: BAO-2026a205-(I-1202)